

6. FINAL LAURDENA. LAUDIO

Aurkezlea: Lierni Altuna

8KO NAGUSIA

Onintza Enbeita eta Jon Martin

Alakrana itsasontziko bi marinelen familiartekoak zarete. Egunak aurrera doaz, eta etxeakoak ez dira etxeratzen.

Onintza hasita, hiruna bertso zortziko handian.

Miren Amuriza eta Iñigo Izagirre

Joan den larunbatean Donostiako manifestazioan zineten biok. Amorruez eta kezkatuta joan zineten, baina itxaropen-izpi bat sentitu zenuten han.

Miren Amuriza hasita, hiruna bertso zortziko handian.

Arkaitz Oiartzabal eta Fredi Paia

Azkenaldian, zuen egoera ekonomikoa ez da oso eroso, eta, jantoki sozialera ez joateko ahalegina egin duzuen arren, gaur ez duzue beste erremediorik izan.

Arkaitz hasita, hiruna bertso zortziko handian.

8KO TXIKIA

Jon Martin eta Miren Amuriza

Lagunak zarete. Jon, aspaldiko partez, elkarrekin afaldu duzue zure etxean.

Komunera joan eta bueltatu zaren batean, Miren erdi biluzik topatu duzu sofan.

Jon hasita, hiruna bertso zortziko txikian.

Fredi Paia eta Onintza Enbeita

Tabernaria zara, Fredi, eta Onintza zerbitzaria kontratatu berri duzu. Begira zaudenez geroztik bigarren aldiz, erronda atera eta ez du kobratu.

Fredi hasita, hiruna bertso zortziko txikian.

Iñigo Izagirre eta Arkaitz Oiartzabal

Tenerifera joan zarete oporretara elkarrekin. Iñigo, behin eta berriz esan zenion arren, Arkaitzek ez zuen kremarik eman, eta kiskali egin zen lehen egunean. Aste osoa daramazue apartamendutik osasun-etxera bueltaka.

Iñigo hasita, hiruna bertso zortziko txikian.

PUNTUARI ERANTZUNAK

Onintza Enbeita

Azken final laurdenak / badu enkantua

Pasatuko al zara / hurrengo fasera

Seiehun ta hogeita bi / puntuetan muga

Jon Martin

Autopistan radarrak / bazter guztietan

Argazkiren batean / aterako zinen

Aberasten dabilta / argazkiengatik

Miren Amuriza

Zazpigarren alaba / ote da Araba
Ardoa ta patata / ditu ezaugarri
Mendi eta lautada / denon aukerako

Iñigo Izagirre

Ezagutzen al duzu / gaueko bizitza
Batzuek bila eta / besteak ihesi
Gaueko argia da / goizeko iluna

Arkaitz Oiartzabal

Eragiten al dizu / hego-haizeak zuri
Odolik hoztu ez-ta / burua berotu
Baina kontuz ibili / mendira joatean

Fredi Paia

Saskibaloiaz ezer / ba ote dakizu
Baskonia taldea / European onena
Euskaldunak ez dira / taldean gehiegi

10EKO TXIKIA

Jon Martin eta Arkaitz Oiartzabal

Bikotea zarete, eta duela berrogei urte etorri zineten biok Extremaduratik Laudiora lan bila. Orain, jubilatuta, Arkaitzek jaioterrira itzuli nahi du.
Jon hasita, hiruna bertso hamarreko txikian.

Onintza Enbeita eta Iñigo Izagirre

Elkarrekin ikasi zenuten biolina jotzen gaztetan. Urteak joan dira geroztik. Zuk Onintza Euskadiko Orkestra Sinfonikoan jotzen duzu, eta kalean jotzen topatu duzu Iñigo.
Onintza hasita, hiruna bertso hamarreko txikian.

Miren Amuriza eta Fredi Paia

Zuk Miren bost urte daramatzazu zahar-etxe batean bizitzen, Fredik gaur du lehen eguna, eta zure gela berean jarri dute.
Miren hasita, hiruna bertso hamarreko txikian.

KARTZELA

Mila aldiz pentsatu izan duzu ez duzula gehiago gezurrik esango, baina berriro esan duzu.
Hiru bertso nahi duzun neurri eta doinuan.